Autoritateak katalogatzeko eskuliburua

2026ko Azaroa

c/ Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
– tef. 945 01 94 70 –
e-mail: liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA 2
ESKULIBURUAREN HELBURUA 4
APLIKAZIO-IRIZPIDEAK 4
Katalogoak 5
Autoritate-erregistroen 7
Karaktere bereziak dituzten autoritateak 9
Autoritateak sortzeko hizkuntza 10
Autoritate berriak sortzea 11
Autoritateak balioztatzea 11
Autoritateak kapturatzea 11
Euskarazko/gaztelaniazko autoritateak lotzea erregistroan 12
Autoritate berdinak 14
Euskal autoritateak 15
Kasu bereziak 16
Bilaketak 18
AUTORITATEEN KATALOGAZIOA 19
GOIBURUA (EE) 19
T008 LUZERA FINKODUN EREMUA (EE) 21
T040 KATALOGAZIO-INFORMAZIOAREN ITURRIA ETA APLIKAZIOA (EE) 27
T080 SAILKAPEN HAMARTAR UNIBERTSALEKO ZENBAKIA (E) 29
T100 SARRERA NAGUSIA – PERTSONA-IZENA (EE) 31
Egile-/serie-autoritatea 50
T110 SARRERA NAGUSIA – KORPORAZIO-IZENA (EE) 53
T111 SARRERA NAGUSIA – BILTZARREN SARRERA (EE) 61
T130 SARRERA NAGUSIA – IZENBURU UNIFORMEA (EE) 65
1. Lan anonimoak eta Biblia 67
2. Egile ezagunen banakako izenburuak 70
3. Serieak 71
4. Argitalpen seriatuak 76
5. Izenburu uniforme kolektibo aizunak 82
6. Musika-lanak 84
7. Legeria 88
8. Nazioarteko tratatuak 90
9. Softwarea 92
10. Sare sozialak 92
T150 GAI-SARRERA - GAIA (E) 94
Gai-sarreak 95
1. Ordenagailu-hizkuntzak 102
T151 GAI-SARRERA – IZEN GEOGRAFIKOA (E) 104
T155 SARRERA – GENERO/FORMA TERMINOA (EE) 108
T180 SARRERA – AZPIATAL OROKORRA (EE) 110
T181 SARRERA – AZPIATAL GEOGRAFIKOA (EE) 112
T182 SARRERA – AZPIATAL KRONOLOGIKOA (EE) 113
T185 SARRERA – FORMAREN AZPIATALA (EE) 115
T370 LOTUTAKO LEKUA (E) 118
T372 JARDUERA (E) 121
T374 LANBIDEA (E) 123

T375 GENEROA (E) 125
T377 LOTUTAKO HIZKUNTZA (E) 126
ERREFERENTZIA EREMUAK: 4XX, 5XX 127
T400 IKUS ERREFERENTZIA-AIPAMENA - PERTSONA-IZENA (E) 129
T410 IKUS ERREFERENTZIA-AIPAMENA – KORPORAZIO-IZENA (E) 130
T411 IKUS ERREFERENTZIA-AIPAMENA - BILTZAR-IZENA (E) 133
T430 IKUS ERREFERENTZIA-AIPAMENA - IZENBURU UNIFORMEA (E) 135
T450 IKUS ERREFERENTZIA-AIPAMENA - GAIA (E) 137
T451 IKUS ERREFERENTZIA-AIPAMENA - TERMINO GEOGRAFIKOA (E) 138
T455 IKUS ERREFERENTZIA-AIPAMENA - GENERO/FORMA TERMINOA (E) 139
Nola sartu T5XX eremu bat $w posizioarekin 140
T500 IKUS GAINERA ERREFERENTZIA-AIPAMENA - PERTSONA-IZENA (E) 143
T510 IKUS GAINERA ERREFERENTZIA-AIPAMENA - KORPORAZIO-IZENA (E) 145
T511 IKUS GAINERA ERREFERENTZIA-AIPAMENA - BILTZAR-IZENA (E) 147
T530 IKUS GAINERA ERREFERENTZIA-AIPAMENA - IZENBURU UNIFORMEA (E) 149
T550 IKUS GAINERA ERREFERENTZIA-AIPAMENA – GAIA (E) 151
T551 IKUS GAINERA ERREFERENTZIA-AIPAMENA - IZEN GEOGRAFIKOA (E) 152
T555 IKUS GAINERA ERREFERENTZIA-AIPAMENA – GENERO/FORMA TERMINOA (E) 153
ERREFERENTZIA KONPLEXUKO EREMUAK: 360, 663, 665 154
T360 IKUS GAINERA ERREFERENTZIA KONPLEXUA – GAIA (E) 154
T663 IKUS GAINERA ERREFERENTZIA KONPLEXUA (E) 155
T665 ERREFERENTZIA HISTORIKOA (EE) 159
SERIEAREN TRATAMENDU-EREMUAK: 64X 161
T640 ARGITALPEN-DATEI ETA/EDO SERIEAREN LIBURUKIEI BURUZKO INFORMAZIOA (E) 161
T641 SERIEAREN NUMERAZIOAREN BEREZITASUNAK (E) 163
T642 SERIEAREN NUMERAZIOAREN ADIBIDEA (E) 164
T643 SERIEAREN ARGITALPEN-LEKUA ETA ARGITARATZAILEA (E) 165
T644 SERIEA KATALOGATZEKO MODUA: ANALITIKOA EDO EZ ANALITIKOA (E) 166
T645 SERIEAREN BIGARREN-MAILAKO SARRERA KATALOGATZEKO MODUA (E) 167
T646 SERIEA SAILKATZEKO MODUA (E) 168
OHAR-EREMUAK: 667, 670, 678, 680 169
T667 OHAR OROKOR EZ PUBLIKOA (E) 169
T670 KONTSULTATUTAKO ITURRIA (DATUEKIN) (E) 170
T678 DATU BIOGRAFIKOAK EDO HISTORIKOAK (E) 181
T680 PUBLIKOARENTZAKO OHAR OROKORRA (E) 183

1. ERANSKINA Autoritate-erregistroentzako T008 ereduak 184

2. ERANSKINA Autoritate-sarrera desberdinetarako T008aren posizioak 192

3. ERANSKINA Itzulpenak T130 musika 194

4. ERANSKINA T374 lanbidea 197

ITZULPEN-BILDUMA 202

ESKULIBURUAREN HELBURUA

Eskuliburu honen helburua da Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean (EIPS) dauden liburutegietako katalogatzaileei AbsysNet-en **AUTORITATE-SARRERAK** sortzeko jarraibide batzuk ematea, autoritateen fitxategi homogeneo eta normalizatu bat izan dezaten.

Eskuliburu praktikoa denez, etengabe eboluzionatzen ari da; beraz, lan-dokumentu dinamikoa da, liburutegiko jardunbideen arabera aldaketak jasan ditzakeena. Erreferentzia-iturrietan, beste liburutegi batzuetako jardunbideetan eta beste liburutegi eta erakunde batzuetako askotariko azterlan teorikoetan oinarritzen da.

APLIKAZIO-IRIZPIDEAK

Autoritate-erregistroek (AUTO) katalogatzaileek erregistro bibliografikoetan modu normalizatuan erabili beharreko sarrerak ezartzeko (CATA) gauzatutako ikerketa islatzen dute. Sarrera horiek informazio honetarako sarbidea ematen dute:

a) Lana identifikatzeko izenburuak.

b) Pertsonak eta korporazio-erakundeak, honen arabera:

- lanaren edo adierazpenaren erantzukizun intelektuala.
- adierazpenaren ekoizpen fisikoaren eta banaketaren erantzukizuna.
- alearen zaintzaren erantzukizuna.

c) Lanari dagokion gaiaren araberako sarbideak.

d) Dokumentuaren generoaren edo formaren araberako sarbideak.

Katalogatzeko baimena duten liburutegiek autoritateak sortzeko baimena ere izango dute; dena den, autoritate guztiak **Liburutegi Zerbitzuan** balioztatuko dira (aldizka balioztatzeko zerrendak bidali).

Autoritateak eta gai-sarrerak euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira beti.

Autoritateak sortzeko edo aldatzeko garaian, komenigarria da zenbait datu-base kontsultatzea (Liburutegi Nazionaleko Autoritateak, Library of Congress Authorities, ISBN edo IMDB datu-baseak...), autoritate horiek egokiak direla ziurtatzeko.

Katalogoak

❖ *Pertsona-izenen sarrerak egitea*

- ***Reglas de Catalogación***. Madrid: Dirección General del Libro, Archivos y Bibliotecas, 1999.
- ***BNEko Autoritateen Katalogoa*** [helbide honetan ikus daiteke: http://www.bne.es] [Kontsulta: 2023eko otsailak 3]
- Mujika Etxeberria, Alfontso; Goenaga Unamuno, Ane eta Alberdi Gorostiaga, Andrés. ***Onomastika: irizpideak***. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2005 (+ 1 CD-Rom).
- ***Azkue Biblioteka*** (Euskaltzaindia) [helbide honetan ikus daiteke: http://www.euskaltzaindia.eus/azkue] [Kontsulta: 2023eko otsailak 3]
- ***Library of Congress-eko Autoritateen Katalogoa*** [helbide honetan ikus daiteke: http://authorities.loc.gov/] [Kontsulta: 2023eko otsailak 3]
- ***Bibliotèque Nationale de France-eko Autoritateen Katalogoa*** [helbide honetan ikus daiteke: http://catalogue.bnf.fr/] [Kontsulta: 2023eko otsailak 3]
- ***Deutsche Bibliothek-eko Autoritateen Katalogoa*** [helbide honetan ikus daiteke: http://www.dnb.de/] [Kontsulta: 2023eko otsailak 3]
- ***Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa*** [helbide honetan ikus daiteke: http://www.euskadi.net/harluxet] [Kontsulta: 2023eko otsailak 3]
- ***Enciclopedia general ilustrada del País Vasco. Cuerpo A, Diccionario enciclopédico vasco***, Donostia: Auñamendi, D.L. 1968-1997 [helbide honetan ikus daiteke: http://www.euskomedia.org/aunamendi] [Kontsulta: 2023eko otsailak 3]

❖ *Gai-sarrerak egitea*

Gaztelania

Gaztelaniazko gai-sarrerak egiteko honako katalogo hauek erabiliko ditugu:

- ***BNEko Autoritateen Katalogoa*** [helbide honetan ikus daiteke: http://www.bne.es] [Kontsulta: 2023eko otsailak 3]
- ***Library of Congress-eko Autoritateen Katalogoa*** [helbide honetan ikus daiteke: http://authorities.loc.gov/] [Kontsulta: 2023eko otsailak 3]
- ***Reglas de Catalogación***. Madrid: Dirección General del Libro, Archivos y Bibliotecas, 1999.
- Villalón, Alberto. ***Encabezamientos de materia para libros infantiles y juveniles***. Madrid: Fundación Germán Sánchez Ruipérez: Pirámide, 1994
- ***DeCS (Descriptores Ciencias de la Salud) [***https://decs.bvsalud.org helbide honetan ikus daiteke]

- ***Lista de encabezamientos de materia para bibliotecas públicas***. Madrid: Dirección General del Libro y Bibliotecas, D.L. 1993
- ***Listado de encabezamientos de materia de música:*** Kongresuaren Liburutegia/Gardano katalogazio taldearen autoritateen tesauroan oinarritua. - Madrid: Asociación Española de Documentación Musical (AEDOM), 2013.

Euskara

Euskarazko gai-sarrerak egiteko honako katalogo hauek erabiliko ditugu:

- ***AUBI***. Kontsultarako tresna gisa.
- ***BNEko Autoritateen Katalogoa*** [helbide honetan ikus daiteke: http://www.bne.es]. [Kontsulta: 2023eko otsailak 3] IVAPek itzuli ondoren.
- ***Library of Congress-eko Autoritateen Katalogoa*** [helbide honetan ikus daiteke: http://authorities.loc.gov/] [Kontsulta: 2023eko otsailak 3]
- Villalón, Alberto. ***Haur eta gazteentzako liburuetarako gai-sarrerak***, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2006 *[helbide honetan ikus daiteke: http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r464879/es/contenidos/informacion/publi_biblio/es_pub_bib/adjuntos/es_villalon.pdf]* [Kontsulta: 2022eko otsailak 2]
- ***Euskalterm*** *[helbide honetan ikus daiteke:* http://www.euskadi.net/euskalterm*]* [Kontsulta: 2023eko otsailak 3]
- ***Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa*** [*helbide honetan ikus daiteke*: http://www.euskadi.net/harluxet] [Kontsulta: 2022eko otsailak 2]

❖ *Izen geografikoen sarrerak egitea*

- Probintzia desberdinetako eta Autonomia Erkidegoko ***Aldizkari Ofizialak***.
- ***BNEko Autoritateen Katalogoa*** [helbide honetan ikus daiteke: http://www.bne.es] [Kontsulta: 2023.eko otsailak 3]
- Mujika Etxeberria, Alfontso; Goenaga Unamuno, Ane eta Alberdi Gorostiaga, Andres. ***Onomastika: irizpideak***. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2005 (+ 1 CD-Rom).
- ***Euskaltzaindiaren arauak eta izendegiak*** *[helbide honetan ikus daiteke:* http://www.euskaltzaindia.eus] [Kontsulta: 2023eko otsailak 3]

Autoritate-erregistroak

Autoritate-erregistroek islatzen dute, modu normalizatuan, erregistro bibliografikoetan goiburu moduan erabilitako sarrerak:

a) Obra identifikatzeko izenburuak
b) Pertsona edo entitate korporatiboak honen arabera:
   I. Obraren erantzukizun intelektuala edo artistikoa
   II. Erantzukizuna adierazpena fisikoki ekoiztean eta banatzean
   III. Alearen zaintzako erantzukizuna
c) Obra horretan landutako gaiaren araberako sarbideak
d) Generoaren edo dokumentuaren formaren araberako sarbideak

Autoritate-erregistroen tipologia

- Pertsona
- Pertsona/Izenburua
- Korporazio-erakundea
- Korporazio-erakundea/Izenburua
- Lan anonimoen izenburua
- Serieak (egilea/izenburua edo izenburua)
- Gaia
- Izen geografikoak
- Azpisarrera daramaten izen geografikoek, pertsonek, erakundeek eta izenburuek
- Gaien azpisarrerak
- Genero-/forma-terminoak

Autoritate-erregistro baten edukia:

- Goiburua eta erreferentziak
- Goiburuari buruzko informazioa, erregistro bibliografikoetan definitu, erabili eta kontrolatu ahal izateko
- Aukeratutako terminologia, baztertutako formak, beste sarrera batzuekiko loturak eta kontsultatutako iturriak justifikatzen dituen informazioa
- Erabiltzailearentzako azalpen-oharrak eta katalogatzailearentzako argibideak, horien aplikazio uniformea bermatzeko

Autoritate-erregistroak eguneratzea:

Pertsonek, erakundeek edo halakoek beren burua ezagutarazteko duten modua aldatzen bada, edo izena aldatu egiten bada, autoritate-erregistroak berrikusi edo aldatu egin behar dira.

Egile baten heriotza jasotzeko pertsona baten autoritate-erregistroa eguneratzen denean, egilearen eta bere obren erregistro osoa berrikusiko da, hainbat alderdi behin betiko erabakitzeko: izenaren forma, egon daitezkeen aldaerak, obren egiletzaren berrikuspena, etab. Heriotzaren datua dagokion iturriarekin dokumentatu behar da.

Karaktere bereziak dituzten autoritateak

Erabilgarri dugun AbsysNet-en bertsioak ez digu alfabeto latindarrekoak ez diren karaktere bereziak idazten uzten.

Hori dela eta, zenbait egile (Jo Nesbø, Åsa Larsson, etab.) ezin dira ondo idatzi eta beharrezkoa da ***ikus* T4XX** sarrera bat egitea, forma horiek sartu ahal izateko.

Adibidea:
T100 1# $a Nesbo, Jo (**$d**1960-)
T400 1# $a Nesbø, Jo (**$d**1960-)

Arazo honek bereziki eragiten die egile suediarrei, errumaniarrei, poloniarrei, turkiarrei, vietnamdarrei, etab. Zalantzarik izanez gero, kontsultatu Liburutegi Zerbitzuarekin.

Arazo bat gertatzen da, halaber, "puntu zentratua" duten hitzak berreskuratzean ("·"). Puntu hori [maiuskula + 3] teklak sakatuta ateratzen da. Zenbait hizkuntzatan ohikoa da: katalana, greziera, japoniera, etab.

Adibideak:
Col·legi Oficial de Graduats Socials de Barcelona
Col·lecció Homenatges

"Col·lecció" sekuentzia ezin da berreskuratu AbsysNet-en, baina "Col.lecció" bai.

Beraz, "puntu zentratua" duten hitzak ez onartutako T4XX gisa utziko ditugu, eta sarrera nagusian puntu baxua erabiliko dugu halako hitzetan.

Adibidea:
T130 #0 $a Col.lecció Lingüística catalana
T430 #0 $a Col·lecció Lingüística catalana

Autoritateak sortzeko hizkuntza

Autoritate-erregistroak sortzeko hizkuntza aukeratzean, autoritateak bi multzo handitan banatuko ditugu:

Autoritate-erregistro bakarrak

Goiburu bakarra dute, euskararako eta gaztelaniarako balio duena. Autoritate horietako oharrak PARALELOKI idatziko dira euskaraz eta gaztelaniaz (eremu errepikagarrietan, hala direnean). Kasu horretan, **T040**-ko ***$b*** azpieremuan ***baqspa*** idatzi behar da. Multzo honetan sartzen dira:

- Egiletzat pertsona bat duten autoritateak (**T100**), azpisarrerarik edo mugatzailerik gabeak.
- Euskaldunak ez diren (jurisdikzio edo mugatzaile geografikorik gabeak) eta azpisarrerarik ez duten erakunde-autoritateak (**T110**).
- Serie-autoritate (**T130**) elebakarrak.

Euskarazko eta gaztelaniazko autoritate-erregistroak

- Nolabaiteko azpisarrerak edo mugatzaileak dituzten autoritateak (lanbideari dagozkionak, jurisdikzionalak, geografikoak, etab.).
- Erakunde-autoritate euskaldunak (**T110**), orokorrean izendapen elebiduna izaten dutenak.
- Biltzar-autoritateak (**T111**).
- Serie-autoritate (**T130**) elebidunak.
- Gaiei (**T150**) eta termino geografikoei (**T151**) dagozkien autoritateak.
- Genero- edo forma-terminoak (**T155**).

Kasu honetan, **T040**-ren ***$b*** azpieremuan ***spa*** (gaztelaniaz) edo ***baq*** (euskaraz) idatziko da, dagokionaren arabera. Katalogoan beren euskarazko/gaztelaniazko baliokidearekin lotuko dira[1].

[1] Ik. 14. or. *Euskarazko/gaztelaniazko autoritateak lotzea erregistroan*.

Autoritate berriak sortzea

Katalogatzaileak autoritatea AUTO fitxategian ez dagoela egiaztatu ondoren, hori sortzeari ekingo dio. Horretarako, "*Marc 21 format for Authority data*"-n (Library of Congress, 2012) oinarritzen den eskuliburu honi jarraitu beharko dio.

Formato MARC 21 para registros de autoridad. Edición completa, actualización n. 31 (2020ko abendua)

Itzulpen honek 1999ko *MARC 21 Format for Authority Data* ingelesezko testuan oinarrituta dago. 2000. urtetik 2020ko abendura arteko eguneratze guztiak biltzen dituena.

Autoritateak balioztatzea

Autoritateen fitxategia ahalik eta kontrolatuen edukitzeko, Liburutegi Zerbitzuak zehaztuko ditu autoritate guztiak; beraz, autoritateak behin betikoak izateko Liburutegi Zerbitzuak berrikusi beharko ditu.

Liburutegiek hau izan beharko dute kontuan:

- Autoritate bat sortzean, **T008/33 posizioa *c*** bat dela (**behin-behineko sarrera**) ziurtatuko dugu.
- **T040 $a**-n zentro katalogatzailearen kodea sartuko da[2]

Autoritateak kapturatzea

Autoritateen katalogoa oraindik ez dago behar bezala orraztuta. Hori dela eta, baliteke katalogatzaileak autoritateak errepikatuta aurkitzea, eta zein aukeratu ez jakitea. Arazo hori konpontzeko, **BETI egiaztatu** behar du autoritate horien **T040** eremua, eta **ELS-AUBI** kodea barne hartzen duena kapturatu beharko du (***$a***-ren *eta* ***$c***-ren atzetik, edo ***$d***-ren atzetik). Horretarako, katalogazio-pantailan sartu ondoren:

1. Bilaketa-terminoa sartuko dugu. (Adib., Lope de Vega)




2.  "Bilatu" botoia sakatuko dugu eta hainbat autoritate agertuko zaizkigu; horien artean bat aukeratu beharko dugu.

3. Gure beharretara ondoen egokitzen den autoritatea aukeratuko dugu.
4. UPDATE formatu-laukia markatuko dugu 

[2] Ik. T040 KATALOGAZIO-INFORMAZIOAREN ITURRIA ETA APLIKAZIOA (EE), eskuliburu honetan bertan, 28. or.

5. Bistaratu "Bistaratu" botoia sakatuko dugu, T040 eremuaren kodea egiaztatzeko.



6. **T040**-an ELS-AUBI agertzen dela egiaztatu ondoren (***$a***-ren *eta* ***$c***-ren atzetik, edo ***$d***-ren atzetik), kapturatu egingo dugu.

Euskarazko/gaztelaniazko autoritateak lotzea erregistroan

AbsysNet-en 6.0 bertsiotik, autoritateak lotzeko aukera dago; hau da, gaztelaniaz onartutako autoritate bat onartutako euskarazko bere baliokidearekin lotu daiteke, eta alderantziz, erregistro berean. Beraz, baliozko autoritate batek bi hizkuntzetako baliokide bana eduki ahal izango ditu: euskarazkoa eta gaztelaniazkoa; eta horien artean ezarritako erlazioen artean nabigatu ahal izango da.

Lotura egiteko, bi autoritateak onartuta daudela egiaztatu behar dugu. Horrela egingo dugu:

1. Horietako lehenengoa sortuko dugu, euskaraz edo gaztelaniaz, dagokion **T1XX** eremuan, eta onartu laukia sakatuko dugu .
2. Ondoren, horren baliokidea sortuko dugu beste hizkuntzan, autoritate-erregistro berri batean. Bigarren autoritate hori balioztatu aurretik, dagokion **T7XX** eremuan[3] jarriko gara eta kontsulta-ikonoa sakatuko dugu .
3. Dagokion autoritatea bilatu eta kapturatu egingo dugu. Orain erregistroa baliozta dezakegu ( ). Honela, bi autoritateak automatikoki lotuta gelditu dira

[3] Autoritate-erregistroa T100ekoa bada, T700en jarriko gara; T110ekoa bada, T710en jarriko gara; eta horrela gainerakoekin ere.

T150:
« 1»«a»Abuelos
T550:
« 1»«w»g «ZZ_»«a»Padres«ZZ0001583»
T550:
« 1»«a»Ancianos«ZZ0003115»
T750:
« 4»«a»Aitona-amonak«ZZ0000356»

T150:
« 4»«a»Aitona-amonak
T550:
« 4»«w»g «ZZ_»«a»Gurasoak«ZZ0001584»
T550:
« 4»«a»Adinduak«ZZ0003116»
T750:
« 1»«a»Aitona-amonak«ZZ0000355»

Egitura hori guztia sortu ondoren autoritateren bat aldatu nahi badugu, aldaketa dagokion autoritatean bakarrik egin beharko dugu (**T1XX**). Aldaketa onartu ondoren, katalogoa eguneratzean, aldaketak dokumentu guztietan agertuko dira, bai erlazionatutako autoritateetan bai erregistro bibliografikoetan[4].

[4] Katalogo Bibliografikoa gaueko prozesuaren bidez eguneratzen da, beraz, aldaketak Autoritateen Katalogoan egin eta hurrengo egunean ikusiko dira bertan.

Autoritate berdinak

INOIZ bakarrak izan ezin diren guztiak dira. (baqspa T040an)

Euskaraz eta gaztelaniaz emaitza berdina izan arren, beti bi autoritate-sarrera egin behar dira eta haien arteko lotura egin.

Adibideak:
T040 ## **$a**O1000 **$b**spa **$c**O1000 **$d**ELS-AUBI
T151 #1 **$a**Argentina -**$x**Historia
T751 #4 **$a**Argentina -**$x**Historia«ZZ0093842»

T040 ## **$a**O1000 **$b**baq **$c**O1000 **$d**ELS-AUBI
T151 #4 **$a**Argentina **-$x**Historia
T751 #1 **$a**Argentina **-$x**Historia«ZZ0093841»

T040 ## **$a**O1000 **$b**baq **$c**O1000 **$d**ELS-AUBI
T151 #4 **$a**Alemania**-$x**Historia**-$y**1933-1945
T751 #1 **$a**Alemania**-$x**Historia**-$y**1933-1945«ZZ0093641»

T040 ## **$a**O1000 **$b**spa **$c**O1000 **$d**ELS-AUBI
T151 #1 **$a**Alemania--**$x**Historia--**$y**1933-1945
T751 #4 **$a**Alemania--**$x**Historia--**$y**1933-1945 «ZZ0093642»

T040 ## **$a**O1000 **$b**spa **$c**O1000 **$d**ELS-AUBI
T155 #1 **$a**Ska
T680 #1 **$i**SR68
T755 #4 **$a**Ska«ZZ0270914»

T040 ## **$a**O1000 **$b**baq **$c**O1000 **$d**ELS-AUBI
T155 #4 **$a**Ska
T680 #4 **$i**SR68
T755 #1 **$a**Ska«ZZ0270833»

Euskal autoritateak

Autoritate bat euskalduna dela ziur dakigunean, NULL eremuan gehituko dugu: **ELS-BINA.**

ELS (Euskadiko Liburutegi Sistema)

Eremu hau AUTO data basean autoritate euskaldunak (egileak, erakundeak, serieak eta biltzarrak) kontrolatuta edukitzeko erabiliko dugu.

Adibidea:
NULL ELS-BINA
T040 ## $a**O1000 **$bbaqspa **$c**O1000 **$d**ELS-AUBI
T100 1# $a Bergara, Iñaki (**$d**1935-)
T400 1# $a Bergara Izagirre, Iñaki (**$d**1935-)
T400 1# $a Pio (**$d**1935-)

T100 autoritateetan, ahal den guztietan, T370 (lotutako lekua), T374 (lanbidea), T377 (lotutako hizkuntza) eremuekin osatuko da. T670 eremuetan jartzen den informazioa justifikatu behar da beti.

Gainerako autoritate nagusietan T11X, T130 NULL eremuan bakarrik jarriko da ELS-BINA.

Kasu bereziak

GIDOIA DUTEN AUTORITATEAK

Autoritateek gidoia barne hartzen duten kasuan. Gidoia itsatsita jarriko da, zuriunerik gabe.

Adibidea:
Castilla-La Mancha □ eta ez Castilla - La Mancha

A BILDUA

A bildua sinboloa (@) ezin da bilatu.

Titulu edo erakunderen batean agertzen bada, horrekin lotutako forma guztiak jarri behar dira, berreskuratu ahal izateko.

Adibideak:
@rroba – Aldizkariaren izenburua

@Guggenheim: guía del Museo Guggenheim Bilbao – Aldizkariaren izenburua

Royo, Jordi (1959-)
@-dreams / Jordi Royo. -- 1ª ed. -- Vitoria-Gasteiz: Bassarai, 2009
41 p. ; 22 cm. – (Poesía ; 54)
D.L. BI 516-2009
ISBN 978-84-96636-33-0
Beste izenburu batzuk: E-dreams
Beste izenburu batzuk: Arroba-dreams

AUTORITATE BEREZIAK

Kasu honetan, musika-taldearen izena “!!!” da.

Adibidea:
!!!
< Chk Chk Chk
< Chic Chic Chic
< Chik Chik Chik
< Pow Pow Pow
< Ungh Ungh Ungh
< Ungh Ungh Ungh
< Uh Uh Uh
< Admiración Admiración Admiración
< Chas Chas Chas
Myth takes, 2007: etiqueta (!!!)
Myth takes, 2007: etiketa (!!!)

WWW LC Auth. file, 2008-01-17: (!!! (Musical group); Chk Chk Chk; Chic Chic Chic; Chik Chik Chik; Pow Pow Pow; Ungh Ungh Ungh; Uh Uh Uh; "spell it !!! say it chk chk chk [in bold type] (pow pow pow) (ungh ungh ungh) etc."; "The curiously named !!!, whose moniker can be pronounced by repeating any one-syllable percussive sound three times (e.g., "chk chk chk") ..."; (Chk Chk Chk); "!!! is pronounced by repeating any three repetitive, monosyllabic sounds. Though the possibilities are endless, the most common pronunciations are Chk Chk Chk, Pow Pow Pow, Uh Uh Uh ... The name was inspired by the subtitles from the film The gods must be crazy, where three clicking sounds of the mouth were represented as !!!.; is pronounced as any three repetitive sounds. Common interpretations are chicchicchic, powpowpow, uhuhuh, among many unlimited possibilities."; pronounced chik chik chik)


Grupo musical
Musika taldea

G0189 baqspa G0189 ELS-AUBI


Bilaketak

Hasi aurretik, bilaketa aurreratuak egin behar dira katalogoan:

- AbsysNet 2.2.5-ko bilaketa bibliografikoak **testu osoan** edo **eremu zehatz** batzuetara mugatuta egin daitezke.
- Bilaketa egiteko terminoak **edonola sar daitezke**: letra larriz edo xehez; eta zeinu diakritikoak, azentu-markak, dieresiak eta halakoak jarrita edo jarri gabe.
- **Sartutako edozein termino bilaketarako termino gisa hartuko da**: hitzak, zenbakiak, karaktere-kateak, etab.
- Gehienez **berrehun eta berrogeita hamar karaktere** sar daitezke kontsulta bakar batean.
- AbsysNet 2.2.5 datu-baseetan **ez dago hitz hutsik**, operadore gisa funtzionatzen dutenak izan ezik (**eta, edo, ez, gertu, bera**).



- Bilatzen dugun autoritatea aurkitu ezean, beste bat sortuko dugu.



AUTORITATEEN KATALOGAZIOA

GOIBURUA (EE)

Goiburuak ez du adierazlerik edo azpieremurik. Informazio kodifikatua bere posizioak zehazten du

Ez da inoiz aldatuko; lehenetsita agertzen diren kodeak bere horretan utziko dira.

MARC21-ean eremu berri bat gehituko da 09 posizioan ("Karaktereen kodifikazioa").

Zuriune bat jarriko dugu (#) posizio horretan (Marc-8).

POSIZIOA	INFORMAZIO KODIFIKATUA	LEHENETSITAKO KODEAK
05	**Erregistroaren egoera**	***n* (berria)**
06	**Erregistro-mota**	***z* (autoritate-erregistroa)**
09	**Karaktereen kodifikazioa**	***#* (zuriunea)**
17	**Kodifikazio-maila**	***n* (autoritate-erregistro osoa)**

05 - Erregistroaren egoera

Erregistroaren eta artxibo baten arteko erlazioa adierazten du

n ***Berria***

06 - Erregistro-mota

Erregistroaren ezaugarriak eta osagaiak adierazten ditu.

z ***Autoritate-erregistroa***

09 - Karaktereen kodifikazioa

***Marc-8***

17 - Kodifikazio-maila

Erregistroa osorik dagoen adierazten du.

n ***Autoritate-erregistro osoa***

Goiburua **Goiburua**

Erregistro-egoera	n
Erregistro-mota	z
Karaktereen kodeketa	
Kodifikazio-maila	n

T008 LUZERA FINKODUN EREMUA (EE)

Eremu honek erregistroari buruzko informazio kodifikatua ematen duten 40 posizio ditu. Informazio kodifikatua bere posizioak zehazten du. Posizio horien aurkezpena erregistroan modu sekuentzialean egiten da, adibide honek erakusten duen moduan:

Adibidea:
T008 *040418nnvaipnnaabn##########|n#aac####d*

Autoritate berri bat sortzen denean, eremu honetako kodeak lehenetsita agertzen dira; baina, autoritate motaren arabera (pertsona, erakundea, biltzarra, etab.), posizio horietako batzuk aldatu egin beharko dira. Adibidez (katalogoaren hizkuntza, erreferentziazko balorazioa, etab.) (1. ERANSKINA). Kontuan izan behar dugu, halaber, autoritate zaharrak aldatzen ditugunean **T008**-a ere aldatu egin beharko dela.

Kode alfabetikoak beti minuskulaz idazten dira.

00-05 – Sarrera-data

Erregistroa sisteman sartu zen data zehazten duen kodea, sei karakterekoa. Sistemak sortzen du automatikoki. Ondorengo formatua du: ***uuhhee***. Kontuan izan behar dugu, haber, autoritate bat moldatzerakoan data eskuz eguneratu behar dugula.

06 – Azpiatal geografiko zuzena edo zeharkakoa

Karaktere bakarreko kode alfabetiko honek sarrera azpiataletan bana daitekeela adierazten du, herrialde baten edo beste administrazio-erakunde, eskualde, lurralde edo elementu geografiko baten izenarekin. Posizio hori aplikagarria izango da autoritatea **gaiari dagokionean**. Kasu honetan, gai hori azpiatal geografikoetan zati daitekeen edo ez erabaki beharko dugu.

#	***Azpiatal geografikorik gabe*. Gaia ezin da esparru geografiko batera mugatu (ezin da *$z* bat erabili).**
d	***Azpiatal geografikoarekin*. Gaia esparru geografiko batera muga daiteke (*$z* bat erabil daiteke).**
n	***Ez aplikagarria*. Pertsona-, erakunde- eta izenburu-autoritateetarako.**

Adibidea:
T150 #1 $a Trabajo **-$x** Análisis y descripción
*Adibidean **$z** bat aplikatu ahal izango litzateke (azpiatal geografikoa), eta, beraz, **d** markatu beharko genuke 06 posizioan.*

T130 eremuko sarrera batzuk gai gisa funtziona dezakete, beraz, **T150**eko kodeak aplikatu behako litzaizkieke.

Adibidea: **T130 #0 $a**Biblia **$b**I.B.-**$x**Kritika eta interpretazioa

07– Transliterazio-sistema

Karaktere bakarreko kode alfabetiko honek adierazten du **T1XX** sarrerak izen edo izenburu uniforme bat letraldatuta duela, eta erabilitako transliterazio-sistema ere adierazten du. Gure sarrerak ez dira letraldatuta egongo. Hala, ***n*** **(Ez aplikagarria)** agertuko da lehenetsitako kode gisa, eta hori erabiliko dugu; beraz, ez dugu aldatuko.

n	***Ez aplikagarria*.**

08 – Katalogoaren hizkuntza

Karaktere bakarreko kode alfabetikoa da eta **T1XX** sarreraren hizkuntza adierazten du.

Gure kasuan, honelako erabiliko dugu:

a	***Gaztelania, katalana, galiziera eta euskara.*** **Kode hau erabiliko dugu autoritate "bakarren" kasuan; hau da, autoritateak forma bakarra duenean. Hori da ohikoena egiletza pertsona bakarrari dagokion kasuan.**
s	***Gaztelania bakarrik.*** **Gaztelaniaz sortutako autoritateetarako.**
v	***Euskara bakarrik*. Euskarazko sarreretarako.**

09 – Erregistro-mota

Karaktere bakarreko kode alfabetikoa da eta autoritate-erregistroaren mota adierazten du; 1XX sarrera baten forma ezarria edo ezarrigabea adierazten du. ***a*** kode lehenetsia agertuko da eta, beraz, ez dugu aldatuko.

a	***Ezarritako sarrera***. 100-15X eremuak hauei dagokien ezarritako sarrera bat du: izen bat, izen/izenburu konbinazio bat, izenburu uniforme bat, gaikako termino bat edo aipatutako izen horietako bat, luzapena duen sarrera gisa erabilita.
d	***Azpiatala.*** 18X eremuak finkatu gabeko sarrera bat du, gaikako azpisail gisa erabil daitekeena finkatutako sarrera baten azpian.

10 – Katalogazio-arauak

Karaktere bakarreko kode alfabetiko honek izen baten, izen/izenburu baten edo izenburu uniforme baten **T1XX** sarrera idazteko erabilitako katalogazio-arauak identifikatzen ditu. ***d*** kodea agertzen da lehenetsita, eta **AACR2**-rekin bateragarria den erregistroa erabiltzen dugula adierazten du; beraz, ez da aldatu behar.

d	***AACR2*.**

11 – Gai-/thesaurus-sarreren sistema

Karaktere bakarreko kode alfabetikoa da eta 1XX sarrera idazteko erabilitako gai-/thesaurus-sarreren sistema identifikatzen du. Kasu honetan, "***Liburutegi publikoetarako gai-sarrerak"*** erabiliko ditugu; horien kodea ***z*** da eta lehenetsita agertuko da, beraz, ez dugu aldatuko.

z	***Beste araudi batzuk.***

12 – Serie-mota

Karaktere bakarreko kode alfabetikoa da eta onartutako sarrera-erregistro baten **T130** eremuak barne hartzen duen serie-mota adierazten du. Zatitutako obren serie monografikoak bereizten dira hemen, osotasun gisa katalogatuta. Logikoki, serie-sarrerak ez direnean (pertsona, erakundea eta izenburua), eremu hau ezin izango da aplikatu eta ***n*** batekin markatuko da.

a	***Serie monografikoa*. Beren izenburua duten argitalpen independenteen multzo bateko izenburu kolektiboa. Ohikoenak dira.**
b	***Itema hainbat liburukitan*. Hainbat liburukiz osatutako argitalpen monografiko baten izenburu orokorra.**
n	***Ez aplikagarria*. Pertsona-, erakunde- eta izenburu-autoritateetarako.**

13 – Serie zenbakitua edo zenbakitugabea

Karaktere bakarreko kode alfabetikoa da, eta **T130** eremuak serie zenbakitu baterako edo zenbakitu gabeko baterako onartutako sarrerarik baduen adierazten du. Autoritatea serieari dagokionean bakarrik aplikatu ahal izango da.

a	***Zenbakitua*.**
b	***Zenbakitugabea.***
n	***Ez aplikagarria*. T1XX eremuaren sarrerak ez du serierik adierazten.**

14 – Sarreraren erabilera – Erregistro nagusia edo bigarren mailakoa

Karaktere bakarreko kode alfabetikoa da, eta **T1XX** eremuak katalogazio-arauetara egokitzen den onartutako sarrerarik baduen adierazten du; beraz, erregistro bibliografikoetan, sarrera nagusiko **T1XX** eremu batean edo bigarren mailako sarrerako **T7XX** eremu batean erabil daiteke.

a	***Egokia.***
b	***Desegokia.***

15 – Sarreraren erabilera – Gaiaren bigarren mailako erregistroa

Karaktere bakarreko kode alfabetikoa da, eta **T1XX** eremuak gai-/thesaurus-sarreren sistemako irizpideekin bat egiten duen sarrera onartu bat baduen adierazten du; beraz, egokia da erregistro bibliografikoetan **T6XX** gaietarako bigarren mailako sarrera gisa erabiltzeko.

Gure sarrera guztiak bat etorriko dira aipatutako irizpideekin eta, ondorioz, ***a*** kodea jarriko zaie (Egokia). Kode hori lehenetsita agertzen da, beraz, ez da aldatuko.

a	***Egokia*.**

16 – Sarreraren erabilera – Seriearen bigarren mailako erregistroa

Karaktere bakarreko kode alfabetikoa da eta **T130** eremuko sarrera **T8XX** erregistro bibliografikoetan bigarren mailako serie-sarrera gisa erabiltzeko egokia den adierazten du.

Egokia izango da **T130** sarrera serieari dagokionean (ez gaiari edo izenburuari). Kasu horretan, ***a*** aukera hautatuko dugu (egokia). Bestela, ***b*** kodea hautatuko dugu (desegokia).

a	***Egokia.***
b	***Desegokia.***

17 – Gaikako azpiatal-mota

Karaktere bakarreko kode alfabetikoa da eta 1XX eremuko edukiaren gai azpizatiketa mota, onartutako sarrera eta azpieremua edo erreferentzia eta azpieremu erregistroa adierazten duena.

a	**Gaiakakoa**
b	***Formakoa***
c	***Kronologikoa***
d	***Geografikoa***
e	***Hizkuntzakoa***
n	***Ez da aplikagarria*. 1XX goiburua ez da gaiaren azpisail bat.**

28 – Gobernuaren agentzia-mota

Lehenetsitako aukera gisa, **|** sinboloa agertuko da (AltGr+1), eta ez da aldatuko.

|	***Ez dago kodifikatzeko asmorik*.**

29 – Erreferentzien ebaluazioa

Karaktere bakarreko kode alfabetikoa da eta erreferentziazko aipamenen eremuak (T**4XX - -T5XX**) erregistroko **1XX** sarrera idazteko erabilitako arauekin bat datozen adierazten dute. Gure kasuan, **aipamen guztiak etorriko dira bat arauekin**, eta, beraz, ***a*** kodea jarriko dugu autoritate-erregistroaren **T1XX** eremuak erreferentziak dituenean, eta ***n*** kodea halako erreferentziarik ez dagoenean.

a	***Erreferentzia-aipamenak koherenteak dira sarrerarekin*. Errenferentzia-aipamenak daude (erregistroak ez dauka T4XX--T5XX eremurik)**
n	***Ez aplikagarria*. Ez dago erreferentziarik (erregistroak ez dauka T4XX--T5XX eremurik)**

31 – Eguneratzen ari den erregistroa

Karaktere bakarreko kode alfabetikoa da eta erregistroaren edozein eremutan aldaketaren bat egitea pentsatzen den adierazten du. Hasiera batean, ez dugu erregistroan aldaketarik egiteko asmorik eta, beraz, bertan dauden datuak erabili ahal izango dira. Egoera hori ***a*** kodearekin (erregistro erabilgarria) markatuta gelditzen da zuzenean, eta ez da aldatu behar izango.

a	***Erregistro erabilgarria*.**

32 – Bereizi gabeko pertsona-izena

Karaktere bakarreko kode alfabetikoa da eta **T100** eremuko sarrera bateko pertsona-izena norbanako bakarrarentzat edo askorentzat erabiltzen den adierazten du. Beraz, posizio hori autoritatea **egile bakar bati** dagokionean bakarrik erabil daiteke. Kasu honetan, autoritatea bakarra den edo izen bera duten hainbat egile barne hartzen dituen adieraziko dugu; hau da, homonimia bat ezin izan den desegin.

a	***Pertsona-izen bereizia*. Izen bakarra: autoritatea egile bakarrari dagokio.**
b	***Bereizi gabeko pertsona-izena*. Homonimiaren kasua.**
n	***Ez aplikagarria*. Autoritateak pertsona bati ez dagozkionean edo familia-izenak direnean.**

33 – Formulazio-maila

Karaktere bakarreko kode alfabetikoa da eta sarrerak katalogazio-sistemarekin eta/edo erabilitako sarreren sistemarekin zenbateraino bat egiten duen adierazten du. ***c*** kodea agertuko da lehenetsita, eta horrek esan nahi du sarrera behin-behinekoa dela. **KATALOGATZAILEAK EZ DU ALDATUKO**.

Aldaketa Liburutegi Zerbitzutik bakarrik egin ahal izango da, autoritatea onartu ondoren (***c*** kodearen ordez ***a*** kodea jarriko da (ezarritako sarrera)).

a	***Osorik ezarria.***
c	***Behin-behinekoa*.**

38 – Aldatutako erregistroa

Karaktere bakarreko kode alfabetikoa da eta erregistroaren jatorrizko edukia aldatu den adierazten du, ordenagailu bidez irakurtzeko formatura igaro ezin ziren karaktereak zituelako edo sistemak baimendutako gehienezko luzera gainditzen zuelako. Hasiera batean, hori ez da gure kasua izango, eta zuzenean zuriune bat agertuko da (aldatugabea); horrela utziko dugu.

#	***Aldatugabea.***

39 – Katalogazio-iturria

Karaktere bakarreko kode alfabetikoa da eta autoritate-erregistroa sortu duen zentroa identifikatzen du. Gure kasuan, erregistro guztiak sortu dituen zentroa Liburutegi Zerbitzua izango da eta, beraz, zuzenean ***c*** aukera agertuko da, autoritatearen iturria partekatutako sare bateko kide dela adierazten duena.

c	***Katalogazio kooperatiboko programa.***

Autoritate-sarrera desberdinetarako T008-ko posizioen LABURPEN-TAULA: ikusi 2. ERANSKINA.

T040 KATALOGAZIO-INFORMAZIOAREN ITURRIA ETA APLIKAZIOA (EE)

Eremu honetan adieraziko da Marc kodea edota jatorrizko erregistroa sortu zuen erakundearen izena, Marc edukiaren identifikatzaileak ezarri eta erregistroa ordenagailuz irakurtzeko formatuan transkribatu zuenarena, edo lehendik zegoen Marc erregistroa aldatu zuenarena.

Gure kasuan, Liburutegi Zerbitzuak zentro bakoitzarentzat ezarritako kodeak erabiliko dira.

Honela bete beharko da:

***$a**Zentro katalogatzailearen kodea **$b**Autoritatearen hizkuntza **$c**Zentro katalogatzailearen kodea*

Adierazleak	
Lehena	***# Zehaztugabea***
Bigarrena	***# Zehaztugabea***
Azpieremuko kodeak	
$a	***Katalogazio-iturria (EE)***
$b	***Hizkuntza (EE)***
$c	***Transkripzioaz arduratzen den zentroa (EE)***
$d	***Aldaketaz arduratzen den zentroa (EE)***

$a – Katalogazio-iturria

Azpieremu honek MARC kodea barne hartzen du, edo jatorrizko erregistroa sortu zuen erakundearen izena.

$b – Hizkuntza

Azpieremu honek erregistroa katalogatzean erabilitako hizkuntzaren kodea adierazten du. Gure kasuan euskara (**baq**), gaztelania (**spa**) edo bakarra (**baqspa**) izango da.

$c – Transkripzioaz arduratzen den zentroa

Azpieremu honek MARC kodea edo erregistroa ordenagailuz irakurtzeko moduan transkribatu zuen erakundearen izena adierazten du. Zentro katalogatzailearen berdina izango da.

$c – Aldaketaz arduratzen den zentroa

Azpieremu honek MARC21 kodea edo MARC21 erregistroa aldatu zuen erakundearen izena adierazten du. Aldaketaren bat egiten den guztietan beteko da azpieremu hau, horrela, erregistroetan egindako aldaketak kontrolatu ahal izateko.

Liburutegi Zerbitzuak autoritatea balioztatzen duenean, **ELS-AUBI** kodea agertuko da **$d** azpieremuan.

Adibideak:
Durangoko Liburutegiak egindako autoritate-erregistroa, baliozkotu gabe:
T040 ## $a**B0095 **$bbaqspa **$c**B0095

Autoritate-erregistroa Liburutegi Zerbitzuak berrikusi ondoren:
T040 ## $a**B0095 **$bbaqspa **$c**B0095 **$d**ELS-AUBI

Liburutegi Zerbitzuak (O1000) zuzenean egindako autoritate-erregistroa:
T040 ## $a**O1000 **$bbaqspa **$c**O1000 **$d**ELS-AUBI

Azpieremu bakoitzak aurrez zehaztutako katalogazio-taula bat du; “katalogatzeko laguntza” botoia sakatuz gero, erabil ditzakegun aukerak bakarrik ikusiko ditugu 

T080 SAILKAPEN HAMARTAR UNIBERTSALEKO ZENBAKIA (E)

ALDEZ AURREKO ARGIBIDEAK:

· RDA agertu ondoren eta FRAD ereduari jarraituz, MARC21eko **T080** autoritate-eremu berriak sortu dira, tradizioz hainbat autoritate-eremutan banatzen ziren datu-elementuak bereiztea ahalbidetzen dutenak.

· Autoritate-erregistroen informazioa zehaztasun gehiagoz eskuratzeko erabili ahal izango dira.

1XX Onartutako sarrera bati lotutako sailkapen-zenbakia. Zenbakia Sailkapen Hamartar Unibertsalaren eskematik hartzen da.

Eremu errepikagarria da eta SHUko ohar bakoitza T080 eremu independente batean eman behar da.

Adierazleak

Lehena

0 ***Osoa.*** Zenbakia edizio oso batetik hartzen da.

1 ***Laburtua.*** Zenbakia edizio laburtu batetik hartzen da. (Lehenetsita)

Bigarrena ***# Zehaztugabea***

Azpieremuko kodeak

$a ***Notazioa (EE)***

$a – ***Notazioa***

Adibideak:
T080 1# $a7.033
T150 #1 $a Arte medieval
T750 #4 $a Erdi Aroko artea

T080 1# $a631.372
T080 1# $a656.137
T150 #1 $a Tractores agrícolas
T750 #4 $a Nekazaritzako traktoreak

T080 1# $a58
T150 #1 $a Botánica
T750 #4 $a Botanika

T080 1# $a821.361
T150 #1 $a Literatura vasca
T750 #4 $a Euskal literatura

T080 1# $a460.152Bilbao
T151 #1 $a Bilbao
T751 #4 $a Bilbo

T100 SARRERA NAGUSIA – PERTSONA-IZENA (EE)

Autoritate-sarrera gisa erabilitako pertsona-izen bat, erregistro bibliografikoan nagusi edo bigarren mailako gisa erabil daitekeena. Eremu honetan, katalogazio-moduluan **T100, T600, T700 eta T800** eremuetan agertzen diren egile pertsonalen izenak sartzen dira.

Adierazleak

Lehena	**0** ***Izen berezia***. Izen berezi bat edo hurrenkera zuzenean jarritako hitzez, inizialez eta abarrez osatutako izen bat da. **1** ***Abizena(k)*** **3** ***Familia-izena.*** Familia, klan, dinastia, etxe edo halako beste talde bat izendatzen du, zuzenean edo alderantziz.
Bigarrena	***# Zehaztugabea***

Azpieremuko kodeak

$a ***Pertsona-izena (EE)***

$b ***Numerazioa (EE)***

$c ***Izenburuak eta izenari lotutako beste hitz batzuk (E)***

$d ***Izenari lotutako datak (EE)***

$e ***Erlazio-terminoa (E)***

$f ***Argitalpen-data (EE)***

$g ***Denetariko informazioa (EE)***

$h ***Euskarria (EE)***

$j ***Erantzukizunaren izaera (E)***

$k ***Formaren azpisarrera (E)***

$l ***Lanaren hizkuntza (EE)***

$m ***Musika exekutatzeko euskarria (E)***

$n ***Lanaren zati edo atalaren zenbakia (E)***

$o ***Musika moldaketaren aipamena (E)***

$p ***Lanaren zati edo atalaren izena (E)***

$q ***Izenaren modu garatua (EE)***

$r ***Musikarako klabea (EE)***

$s ***Bertsioa (EE)***

$t ***Lanaren izenburua (EE)***

Adibideak:
T100 0# $a Juan, **$c**el Bautista, Santo
T100 0# $a Joan Paulo **$b** II.a**, $c**Aita Santua (**$d**1920-2005)
T100 0# $a Brigita Suediakoa, **$c**Santua (**$d**1303-1373)
T100 0# $a Virgen María
T100 0# $a Alejandro Magno (**$d**356-323 a.C.)
T100 0# $a Alexandro Handia (**$d**K.a. 356-323)
T100 0# $a Bordari (**$d**1910-1983)
T100 1# $a Amuriza, Xabier (**$d**1941-)
T100 1# $a Moix, Terenci (**$d**1942-2003)
T100 1# $a Churchill, Winston, **$c**Sir (**$d**1874-1965)
T100 1# $a García Márquez, Gabriel. **$t**Cien años de soledad
T100 1# $a Loreto, Nicolás del Campo, **$c**Marqués de
T100 0# $a Moisés (Bibliako pertsonaia)
T100 1# $a Cooper, Sheldon (Fikziozko pertsonaia)
T100 3# $a Borbondarren Etxea
T100 3# $a Austriarren Etxea

$a – Izen pertsonala

$a azpieremuak pertsona-izen bat barne hartzen du. Izena abizen batek edo gehiagok eta/edo ponte-izen batek osa dezakete; izen bat ordezkatzen duten letrak, inizialak, laburdurak, esaldiak edo zenbakiak izan ditzake; edo familia-izen bat izan daiteke. Hori kalifikatzen duen edozein termino, parentesi artean agertu edo ez, **$c** azpieremuan sartzen da.

$b – Numerazioa

$b azpieremuak zenbaki erromatar bat edo zenbaki erromatar bat eta, ondoren, ponte-izen bat barne hartzen du. Sarreraren hasierako elementua ere ponte-izen bat denean bakarrik erabiltzen da (lehen adierazlearen balioa: 0).

$c – Izenari lotutako izenburuak eta beste hitz batzuk

$c azpieremuak pertsona-izen bat kalifikatzeko termino bat barne hartzen du. Honako hauek sartzen dira atal honetan:

— maila, kargua edo noblezia adierazten duten tituluak eta hitzak (kardinala, markesa, *sir*, etab.).

— tratamendu-terminoak (andrea)

— pertsona baten maila akademikoa izendatzen duten inizialak, edo erakunde bateko kide edo bazkide dela agerian uzten dutenak (*Dr.*)

— zenbaki erromatarrak (hasierako elementua abizen bati dagokionean bakarrik)

— izenarekin lotutako beste hitz edo esaldi batzuk (santuak)

Hasierako elementua abizen batek edo gehiagok osatzen badute eta ondoren partikula bat badator, hori $c azpieremuan jasoko da, bilaketa- eta antolaketa-prozesuetan ponte-izentzat hartzea saihesteko.

$c-ko puntuazio-markak katalogatzaileak sartu behar ditu; izan ere, programak ez ditu jartzen, aldakorrak direlako.

Adibidea:
T100 0# $a Alfontso **$b** XIII.a, **$c**Espainiako erregea
T100 1# $a Appleton, Víctor **$c**II (izenord.)

$d – Izenari lotutako datak

$d azpieremuak pertsona baten jaiotza- eta/edo heriotza-datak barne hartzen ditu, baita bere jardueran esanguratsuena izandako data edo beste data batzuk ere. Behar direnean, azpieremu honetan jartzen dira, halaber, datak behar bezala interpretatzeko balio duten terminoak (normalean laburtuta: n., m., ca.,?, s., fl.).

$q – Izenaren forma garatua

$q azpieremuak izenaren forma osoagoa barne hartzen du **$a** azpieremuak baino.

Homonimiak desegiteko erabiltzen da, jaiotza-/heriotza-datarik ez dagoenean edo data horiek homonimia desegiteko nahikoak ez direnean. Erregistroa egin ondoren egilearen datak jakiten badira, hauek $q ordeztuko dira eta $q ezabatua izango da datak nahiko badira hominimia desegiteko.

$q azpieremua erabiltzen da egilea identifikatzeko beharrezkoa den informazio txikiena gehituz. Lehentasun-hurrenkera horri jarraitzen zaio izenaren zatiak garatzeari dagokionez:

- Izen bereziaren hasierako letrak. Hasierako letra laburtuak bakarrik erabiliko dira. Izen berezi gehiago gehitu daitezke nahiz eta haien hasiera letrak ez egon, beti ere hominimia desegiteko beharrezkoa bada.

  Adibideak:
  T100 1# $a**Méndez, F. J. **$q(Francisco Javier)
  T100 1# $a Castro Enríquez, A. **$q**(Antonio)
  T100 1# $a Santos, A. **$q**(Arturo José)

- Hasierako letrak ez badaude edo ez badira nahiko hominimia desegiteko. Bigarren abizena gehituko da, lehenengoa berriro errepikatuz.

  Adibidea:
  T100 1# $a**Márquez, José Luis **$q(Márquez Hortelano)
  T100 1# $a Gutiérrez, P. **$q**(Pedro Gutiérrez Soria)

- Egileak izenarekin bakarrik sinatzen badu, osorik garatuko da.

  Adibidea:
  T100 1# $a**A. Alfonso **$q(Antonio Alfonso)
  T100 1# $a Antonio **$q**(Antonio Giménez Pérez)

- Izen konposatuak osorik garatuko dira

Adibidea: **T100 1# $a**Pérez Sánchez, José M. **$q**(José Manuel)

Kasu horiek guztiak bakarrik aplikatzen dira homonimia badago eta jaiotza-/heriotza-datuak ez badaude, edo datu horiek ez badira nahikoak homonimia desegiteko.

$l – Lanaren hizkuntza

$l azpieremuak hizkuntza baten izena edo gehiagorena barne hartzen du, eta lan baten izenburuarekin batera erabiltzen da, izen-/izenburu-sarrera batean.

$t – Lanaren izenburua

$t azpieremuak izen-/izenburu-sarrera batean lan edo serie bat identifikatzeko erabiltzen den izenburua barne hartzen du.

EGUNERATZEA

Autoritate-erregistroak berrikusi edo aldatu egin daitezke, eta aldatu egin behar dira, pertsona, erakundea eta abar ezagutarazteko edo ezagutzeko moduan aldaketak ikusten badira, edo izena aldatzen bada.

Egilearen heriotza jasotzeko pertsonaren autoritate-erregistro bat eguneratzen denean, egilearen eta haren lanen erregistro osoa berrikusiko da, izenaren formaren behin betiko erabakia hartzeko, aldaerak detektatzeko, obren eskuduntzak gainbegiratzeko, etab.

Gainerakoan, ez da egokia autoritate-erregistro bat eguneratzea dagoeneko jasota dagoen edo garrantzitsua ez den informazioa gehitzeko.

APLIKAZIO-IRIZPIDEAK

Mota honetako autoritateak idaztean, honako alderdi hauek izan behar ditugu kontuan:

- Katalogazio-arauei jarraituz idatzi behar da.
- Sarrera nagusia sortzeko:

  - Arau orokor gisa, forma bakarra aukeratu behar da katalogoan pertsona fisiko edo nortasun bibliografiko bakoitzerako onartutako sarrera gisa, eta identitate bibliografiko horri dagozkion izenaren beste aldaerak IKUS erreferentzia gisa erabiliko dira; Soilik izenordeen kasuan hartu ahal izango da pertsona berarentzat onartutako modu bat baino gehiago.

- **Egile garaikideak**: egileak bere burua ezagutarazteko erabili nahi izan duen izena aukeratuko da beti, hau da, **ATARIAN** agertzen den izena.
- **Egile klasikoak, hildakoak eta pertsonaia historikoak**: Liburutegi Zerbitzuak azterketa bat egingo du hainbat katalogoren bidez (liburutegi nazionalak, etab.), autoritate-erregistroa behin betiko ezartzeko.

  Oinarrizko printzipio erabakigarrietako bat da egilearen nahia errespetatzea, bere burua ezagutarazteko erabili nahi duen izenari dagokionez. 15.1.1 A arauak dioen moduan, oro har, egileak bere hizkuntzan argitaratutako obretan erabili duen izen bera erabiliko da. Horregatik, garrantzitsua da ahal den heinean jatorrizko lanak kontsultatzea, itzulpenak beharrean, bertako forma gailenduko baita, nahiz eta itzulpen-kopurua handiagoa izan.

Adibidea: **T100 1# $a**Verne, Jules (**$d**1828-1905) *Eta ez:* **T100 1# $a**Verne, Julio (**$d**1828-1905)

Idazleak nagusiki bere jatorri-herrialdea ez den hizkuntza batean idatzi badu, idazteko erabilitako hizkuntzan bere burua ezagutarazteko erabili duen izena errespetatuko dugu.

